

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultateak diplomak eman dizkie FICOBAn Bidasoako campuseko graduko ikasleei.

2016/05/16

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultateak 2014-2015 ikasturteko tituluak eman dizkie, maiatzak 13, ostirala, Bidasoako campuseko graduko 29 ikasleri (18 neskari eta 11 mutili). Zehazki, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradudunek jaso dituzte diplomak.

Diplomak emateko ekitaldia 18:00etan izan zen, FICOBAn (Gipuzkoako erakustazoka. Helbidea: Iparraldeko hiribidea, 43, Irun). Vicente Atxak, MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektoreak, itxi zuen ekitaldia, eta Lander Belokik, Enpresagintza Fakultateko dekanok, ireki zuen. Ekitaldi-akademikoan zehar, bertaratuek 'Emprender desde la motivación y la innovación' hitzaldia entzun ahal izan zuten, Foto Ikatzen sortzaile eta gerente Juan Mendizabal Alvarez de Arcaya jaunaren eskutik.

Ekitaldiko argazkiak ikusteko: [flickr enpresagintza](#)

